

74R

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
7n. ZENBAKIA

ZEZEILLA
—1978—




LAUAXETA

LAUKINIZ'EN JAIO ZAN (1905-VIII-3)
MUNGIA'N BIZI IZAN ZAN (1906-1937)
GAZTEIZ'EN IL EBEN (1937'VI-25)
GORPUZKIÑAK MUNGIA'RA (1977-XII-25)
(Argazkian)

ZAR

Colón de Larretégui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1



70 urte Bizkaiari laguntzen



CAJA DE AHORROS 
MUNICIPAL DE BILBAO
ONDO ERANTZUTEN DAU

LAUAXETA GORATUA

IZAR ARGIA.—Gure Euskalerriko zeru ederrean makiña bat izar doguz, sekula argitasunik erakutsi barik. Urte lainotsuak, trumoitsuak eta illunak igaro doguz!

Eta onein artean bat Lauaxeta.

Ez dira urte asko beretzat Mungia'n kale bat aukeratu zala. Baiña ez zan giroa! Obeto ikusten zan erriko agintarien senideai kaleak eskintzea. Ezin gomutaratu Lauaxeta!

Baiña illuntasunak eta trumoi-otsak pizka bat baretu diranerako, or agiri dira Euskalerriko zeru ederrean izar argiak: Lauaxeta'ren liburuak, bizitzako zeaztasunak, bere gorpuzkiñak ekartea, omenaldia...

EUSKALDUN ETA EZITZAILLE.—Lauaxeta euskalduna genduan, eta ez da gitxi esatea. Euskalduna jaiotzaz eta biotzez, euskalduna berbaz eta egitez.

Ba ekian erderea be eta idatzi be egiten eban erderaz, baiña euskera zan bere izkuntza eta izkuntza onetan idatzi zituan bere lanik edarrenak.

Euskaldun baiño be geiago, euskaldunen ezitzaille. Orretarako ainbeste batzar, orretarako, mitin, berbaldi... Errigintzako lana.

IDAZLE.—Gai askotan dogu illezkorra Lauaxeta, baiña geien nik uste, idazle lez.

Itz lauz idatzi eban, batez be EUZKADI aldizkarian. Batu barik dagoz bere lanak.

Olerkari lez, barru-miña agertzen onenetarikoa dogu. Bere olerki sailleak: maitasuna, gaztearoa, igarokortasuna, Jainko-zaletasuna. Bere bideak, olerki barriarenak eta modernismo ta panasianismoari jaramon egiñaz. Jakiña, bere sasoiko olerkaria da.

Garcia Lorca'ren adiskide.

Izparlari, ainbeste aldizkaritan barri-emoteak egin zituana, urteetan Euzkadi'ren euskal-atala zuzendu eban.

Antzerkigille lez be egin eban zerbait. Gotzone, bere antzerki bat.

Iztegigille: Onetan be egin eban alegin apur bat, iztegi bat gertatuaz.

Itzultzaille, Baudelaire'ren olerkiak euskeratu zituan.

Gaur lez, guda-aurreko urteetan bearrezkoak ziran izlariak mitiñetarako, jeietarako, jakintza-arloetarako, gudarako.

Eta onetan be sutsua ta trebea genduan Lauaxeta. Zenbat erritara deitu eutsen eta zenbat tokitan alderdi jeltzalearen aide jokatu eban!

Izan zituan bere bizitzan omenaldi ondo mereziduak be!

GUDARI.—Bere bidea, bake-bidea ta kultura-bidea izan arren, izkilluak artu-bearra eldu zan, zori txarrez.

Eta artu zituan izkilluak eta gudaritzan ardura aundiko karguak.

Ori be, gero bizia eskatu eutsan aberriak berak eskatu eutsan!

FEDEDUN.—Bere bizitzako lan-sailla guztietan, Lauaxeta fededun agertzen jaku.

Fededun ikasketan, josulagunen artean, fededun idazketan, fededun gudaritzan, fededun bizitzan eta eriotzan.

Gaurko girotik begitu ezkerro, bere kristautasuna oso «tradicional» a agertzen jaku, Sabin Arana'ren girokoa, baiña sasoi bakoitxean dauke kristiñauak fedea agertzeko era berezia. Agertzea eta orretan ausarta izatea da balio dauana.

BIZI-EMOILLE.—«Ez dauka iñork, bizia emoten dauanak baiño maitetasun aundiagorik», eta Lauaxeta'k bizia emon bear izan eban Aberriaren aide. Itzaltasuna merezidu dau!

Gazteiz'ko uri baketsuan, orma otsaran onduan, eskuak loturik, gogoia Jaunagan, parkatzen, aberriaren berbizkundera billatzen, ogei ta amaika urte zituela, joan jakun gure Urkiaga'tar Estepan.

Bere odol gazteak indartuko al dau gure *lurra*, euskaldun barrien azi izan daiten bere denporakoen eredu ta indartzaille izan zana bera.

JOKERAK

LENA, ORAINA ETA GEROA

Jaungoiko ez gara. Era batera, lena, oraina ta geroa ez ditugu ikusten.

Lenari, berak euki ta emon euskun indarra, deuseztu egin nai izaten jako.

Oraina artzen dabe batzuk ontzat bakarrik. Norberak egin ta ikusten dabena. Ta emen, dago nerezat korapilloa nai galdera...

Geroak guri buruz, zer esan bear ete dau!... Ez giñala? Aitatzekoak ere ez gerala izan?...

Ta eretxi ori dala-ta, gure izate guztia lurpera botateko eskubidea, nork emongo deutso?...

LENAREN INDARRA

Gaurko gizona lengoa baño jakintsuagoa da.

Au gizonaren legea da gaur, ta len ere, olan izan zan.

Orain berrogetamar urtetik eta ona, ikaste, asma-kizun eta aurrerapide aundiak egin dira gizartean.

Aurreratze guzti au lendik artu dogun jakituriari ezarten deutsagu.

Orain berrogetamar urte ta lenagokoak utsean egon izan ba'litzaz eta ezer egin gabe, gu ere antzean eta eurekandik ur egongo giñan.

Perretxiku jakintsurik ez dago.

LURRALDEAK EURENA

Jakitori saillean, lurralde bakoitzak berea izan dau, guk geurea dogun bezela.

Egiz, esan giñaike; gizon izate, almen, bear izanei ta abarrei begiraturik, jakituriaren gora-bera bat erriaren nortasuna da.

Baña gizon, lurralde ta endetara begira jarri ezker, alde aundiak aurkitzen ditugu.

Gizonaren izateak —eta gurea berezia da— jakin zaletasunari esan-nai. Ta indar apartekoa ezarten deutse.

GUK EUSKALDUNENA

Euskaldunak millaak urteren buruan bere nortasun aundi sortu dau.

Egia ta zuzentasuna bere izate bezela biurtuta daukaz.

Jauntxo zale ta zapaltzaille, iñoiz, ez da izan Euskaldunaren japintza, iñola, ez da bide ortatik joan. Euskaldunaren pentsabidea, bata bestearen alde oso deduzkoa, beti, izan zen.

Gizonaren bizia ta eskubideak, deduz, ikusi ditu euskaldunak.

Gure erriak, ikasiz, ta giza legez gizonaren ta errien nortasuna ezagutu ta dan bezela artzen jakin dau.

Bere nortasuna ta erri-zaletasuna, ortxe, oiñarritu ta daukaz.

Gizonak jakituriz, maitasunez ta askatasunez bere izatea ta eskubideak izan ta bizitza egin bear dau.

OINARRIAI EUTSI

Enda zar ta zintzo onek bere oiñarrak ezin ditu apurtu, zuzenak eta egizkoak ditu-ta.

Eusko jakintza ta jakin-zaletasuna, gizontasun berezia ta erlejiñoa, gizaldien gizaldiz, bere-bereak ditu, euskaldunaren izateari, ondo, jatorkozenak.

Origai beratu ditu.

Izkuntza ere, bera dan bezelakoa sortu dau.

Dedu aundikoa, ederra, sakona, mamintsua.

Ta orain, edertasun guzti onek, zelan baztertuko ditugu?

Au gure izatea apurtzea litzake.

Onek kendu ezker, gu ez gara euskotar jatorrizko enda, ez euskaldun, ezta Aitorren giza-seme jatorrak.

Munduko zuzengabekeri ta zapaltzeak ikusita, amorrua artzen dau gizonak, baño, lengo beste batzuen txarkeriak amorrua sortueraz. Besterik ezer egiten ez ba'dau ere. Erriak bere senean zuzentzeko, jakituri ta gizontasuna izango dira erri bide zuzen-dari.

"BERE" ETA "AREN" EN ERABILKERA

ZETAN DIRAN EZBARDIÑAK

Gaztelera-zko «su» poscsiboa bizkaieraz beti edo geienetan BERE egiten dogu. Beste euskalkietan, barriz, batzuetan BERE eta bestetan AREN.

Adibidez :

Iñakik BERE lanak ondo egin ditu.

Kirikiño oso idazle ona da, eta nik BERE liburuak pozik irakurten ditut.

Leenengo esaldian, BERE euskalki guztiak onartuko dabe. Bigarrenean, ostera, bizkaierazko BERE orren ordeztu AREN esango dautsue: «Eta nik AREN (Kirikiño'ren) liburuak...» Gaztelera-zko bietan bardin: «SUS trabajos...» «SUS libros...»

Bizkaiera, beraz, beste euskalkietatik aldendu egin da puntu onetan.

EZBARDINTASUN AU NONDIK DATORREN

Egia esan, arazo, au ez da oraingoa, aspaldidanikoa baiño.

Añibarro'k (1748-1830) Axular'en GERO liburu bizkaieratu ebanean —A. Lino Akasolo jakintsuak ei diñoanez—, AREN guztiak BERE itzuli zituan.

Ezbardintasun onen iturburua, baiña, urrunago dago: latinean.

Aitatu dogun leenengo esakuntzan latinez «omnia opera SUA» esango genduke eta bigarrenean «omnes EJUS libros».

Eta latinkume dan gaztelera-zko bere ama-izkuntzaren legea aide batera itxirik, «suus», «ejus» eta onelango guztiak «SU», «SUS» egin zituan.

Ortik dator gaztelera-zko esaldi askoren zeaztasunik-eza edo anfibiologia.

Eta bizkaierazko gaztelera-zkoen bideari jarraitu dautso, eta beste euskalkiak latinearen bideari.

Aor sustraia.

BATASUNERANTZ JO

Batasunerantz jo bear genduken une onetan, bizkaieraz ber BERE eta AREN-en erabilkera jatorra onartu egin bear gendukela nik uste, idatziz beintzat.

Bizkaitar idazle batzuk, baiña —danak ez, orraitioñtxarto darabille lege au, edo ezagutu be ez dabela egiten dirudi.

BERE noz eta AREN noz erabili bear diran jakiteko, orain urte batzuk dirala, On Manuel Lekuona euskal irakasle ta maixu aundiak oso lan polit bat argitaratu eban KARDABERAZ aldizkarian (Ikusi KARDABERAZ-2, 1973, 41-43 or).

Aren irakatsi argi-emolea bir-ekarteari guztiz mesedegarri deritxat, guztiontzat ikasbide ta jarraibide izan dakigun.

Berbaz-berba aitatu-tuko dot Lekuona jaunaren jarduna, zerbait laburtuaz eta neuk bizkaierara itzuliaz.

Aonelan dirausku Lekuona maixuak.

«BERE» ETA «AREN»-EN LEGEA

Gauzea argitzeko, ipiñi dagigun eskema bat:

NIK, NEURE
ZUK, ZEURE
AREK, BERE?

—Batzuetan bai, bestetan ez.

—Noz bai ta noz ez?

Erantzun baiño leenago, oartxo bat: Posesibo baten barruan («su» baten barruan) beti pertsonal bat dabillega.

Orra orain legea: Posesiboaren barruko pertsonala eta esaeraren pertsonala bat-bera diranean, BERE izango da; beste bat danean, AREN, BERAREN.

Eta guzti au esaera bat-beraren barruan danean; posesiboa urrengo esaeran-edo baldin badago, barriro be AREN izango da.

«Pedro BERE etxean bizi da»; «gu AREN etxean bizi gara». Ori da legea.

Orain, esaera beraren barruko bi pertsonalak bat-bera izatea, lau eratara gerta daiteke:

- Esaeraren pertsonala *nominalivo* danean: «A (Pedro) BERE etxean bizi da»; «Arek (Pedro'k) BERE etxean lan egiten dau».
- Esaeraren pertsonala *acusativo paciente* danean: «A (Pedro) guk BERE etxean ikusi dogu».
- Esaeraren pertsonala *dativo* danean: «Ari (Pedro'ri) guk BERE etxean berba egingo dautsagu».
- Esaeraren pertsonala *ablativo* danean: «Aregaz (Pedro'gaz) BERE etxean egon giñan».

*

1'ng. erako *nominativoa* (a, Pedro) aldatu dagigun, eta leengo BERE ori orain AREN bihurtuko jaku:

—Ni, AREN etxean bizi naz;

—Zu, AREN etxean bizi zara;

—(Beste) A, AREN etxean bizi da;

—Gu, AREN etxean bizi gara;

Zuek, AREN etxean bizi zaree;

Areek, AREN etxean bizi dira.

Alan be, 2'gn., 3'gn., ta 4'gn. erakoetan, aurreko *nominalivoa* aldatuarren, posesiboa BERE izango da ta ez AREN.

—Nik, a (Pedro) BERE etxean ikusi dot;

—Zuk, ari (Pedro'ri) BERE etxean berba egin dautsazu;

—Gu, aregaz (Pedro'gaz) BERE etxean egongo gara.

*

*

Gaztelera-zko, barriz, guzti oneetan SU esango dabe: «Yo vivo en SU casa»; «Tu vives en SU casa», etab.

2'gn., 3'gn., eta 4'gn. craetan, esaeraren *nominalivoa* A danean, esaera naasiak gertatu oi dira: «Arek (Joan'ek) Pedro BERE etxean ikusi dau».

Ez dakigu zeñena dan etxe ori, Joan'ena ala Pedro'rena.

Dagoan legez, badirudi Joan'ena dala.

Orregaitik, Joan'ena ez, baiña Pedro'rena balitz, BERE orren ordeztu beste formaren bat bearko litzateke ipiñi: ONEN, BERONEN, BERAREN: «Joan'ek Pedro ONEN etxean ikusi dau».

Orra On Manuel Lekuona'k irakatsia.

GASTELERA GARBIAGOTU

Eta EUZKERA ERDERATU... ?

«ACADEMICO» AREN BERBAK

Lengo Gabonillan, 18gnean., VALENCIA-ATHLETIC ostikoketa jokaldia Urrutikuskin aurrean ikusi ondoren, bertan erakutsi euskuen, txarto ulertu ezpaneban, iru urteetarako, Real Academia de la Lengua Castellanan, izendatua izan zan gizon bat.

Jaun areri, itaun batzuk egin eutzezan eta itaun aien artean, au zan, gitxi gora bera, eureteriko bat: «LAN ASKO DOZU ORAINTZU EMON DAUTZUEN LAN BARRI ORRETAN?» Eta bere erantzuna, gitxi gora bera au be, olan izan zan: «BAI, BA DOGU LANA. GUZTIOK DAKIZUEN LEZ, GURE LUDI ONETAN, JAKINTZA ARLOAN, AURRERAKADA AUNDIAK EGITEN DIRA. *Eta aurrerapen orrek erri-alde askotan izaten diran lez, euren sort-errietako izkuntzetan izenpetuak izaten dira. Gure Gastelerazko izkuntzan, ainbat eta ainbat olako berba barriak artu dira ta, orain, gure bearrik aundiena da, itz orrek aditaldu, garbitu la Gaztelera egokien diran itz jatorrakaz, euren lekuetan jarri.*»

GIZON JATORRA-BERBA JATORRAK

Ori bai ondo, esan neban aurreko itz orrek entzun nebazanean. Eta, biotz-biotzez txalotu neban jakitun-batzarkide jaun a, bere erri ta bere izkuntza maite dabezalako. Ori bai dala erri maitale ta jakitun-batzarkide (académico) jatorra izatea...

Beste ele jakitun askok diñoenez, onek be, beste itz batzuetan, esan eban: «EUREN BEREZKO SUSTRAIAK DAUKEEZAN IZKUNTZAK EZ DABEELA IÑUNGO BERBA BARRIRIK ARTU BEAR, EURENAK ONDO LANDU BAÑO».

NIKE ITAUNAK

Eta au olan izanik, parkatu baña..., itaun batzuk egin gura neukez:

1go. Zelan lotan egon edo txalotu, lagundu eta ontzat artu, erdera bidean, oraintzu, ipiñi dauskuen gure Euzkera zar au ikusirik?

2gn. Zein da, ontan, Euskaltzaindiak daukan zer egiña?

3gn. Zenbat urtetarako, nork eta zelan aukeratzen dira Euzkal tzaindikideak?

4gn. Ainbeste idazti, izparringi ta aldizkari, atzerritarren izki ta berbaz beterik ikusten danean, zer egin bear Euskaltzaindiak?

5gn. Nork galgatu edo lotu, bazkide-jakitun (?) ta euren laguntzale batzuk, euskera garbiaren aurka, darabillen lur azpiko Ian amurrutu ta zikiñ ori?

6gn. Atzerritarrak izan bear ete dira, gure euskeraren aberastasuna erakusten eta irakasten, etorri bear diranak?

7gn. Noiz arte itxaron bearko ete dogu euskera garbitzeko aldiari?

8gn. Ez dogu ikusten, euskeraren illetak, laster izango doguzala, bide orretatik jarraitzen itziten ba dautsegu?

EGINKIZUNAK ARGI

Nik, argi, ta garbi ikusten dudazango eta emeko eginkizunak...

Euskera batuara joan bear gara... Ba, aurrera..., baña astiro, astiro... eta Euskera batuara, e? Ez, katua erbitzat emon guraz edo ta edozein izkuntza (?) «hibrido» bateri, EUSKARA deituaz... Berba estitsuak erabiltea, ez da naiko. Gizonak zuzen jokatu bear dogu; ardauari, arda eta ogiari, ogi deituaz. Ez adarrrik joten gugana etorri. Gogaitu gara soiñu oneko berbak entzuteaz eta, oraindik aurrera, EGITURA ONAK IKUSTEKO GOGUA DOGU, TA ALDI ORI LASTER ELDUTEKOTAN DAGOLAKOAN GAGOZ.

MARI URRAKA

EUSKALERRIA'n, ugari daukaguz gaztelu eta torre ederrak eta antxiñako jauntxoan bizi-leku izan ziranak.

Batzutan izan diran jazopenen barria ba dakigu, baiña beste asko eskutu aundi batek inguratuta dagoz.

Muntzaraz'ko torrearen kondairako zeaztasun batzuk ezagunak jakuz, baiña etxe eder orrek

jazopen gaiago eskatzen ditualako edo, bere inguruan ipuiñak be sortu dira.

Gaur irakurleen aurrean jarten dogun ipuin onek, Anboto'ko Mari eta Naparroa'ko Santxo Erregea gogoratzen daukuz eta sarritan jazoten dan lez gizakien griñak ugari: Bekaitza, diruzalekeria, maitemiña, eriotzak...

ANBOTO'TIK GORBEA TA OIZ'ERA

Mari euskal-aide edo jenio guztien ama da, Amalur, eguzki ta illargiaren ama.

Kobatan bizi da eta bere kobarik beiñena Anboto'ko atxetan eukan. Emen egoten zan geien.

Zazpi urteTik zazpi urtera Gorbea'ra joaten tan eta emendik Oiz'ko mendira, zazpigarren urtean.

Andra oso ederra zan eta sekulako etxea eukan Anboto'ko atxean, Urrezko orma ta agcakaz egindako etxe ederra.

Urrezko orraziategaz bere ule ugari ta bellegiak orraztu ta orraztu ziarduan beti eta here kobatik, noizik beinka, urteten zan suzko bola baten irudipean eta orrela trumoi-odeien aurrelari jartzen zan, sekulako ekaitzak sortzen here aginduak beteten ez ebezanak zigortzeko.

Berak eukan lcgorte ta euritearen giltza, Guzurtiak gorroto ebazan eta inguruetakoa neskak okerra artu eta bere kobara eroaten ebazan betiko katigu

ABADEÑO'KO PERU TA IBON

Naparroa'ko Santxo'k esan eban hein Errien daukadan gizandi baltz au burrukan azpirate idauanari neure alabea emongo dautsat eikonkidetzat.

Ori entzun ebanean, Abadiano'ko 1Vfuntzaraz torreko seme gazte Peru joan zan ara eta; burruk, latz eta luze baten ondoren, baltz bildurgarri. ori garaitu eta beretzat artu eban erregearen alabaedcra:

Seme-alabak izan ebezan Muntzaraz'ko jauregian ezkonbañuok eta Ibon zan us ena, Mari Urraka txikiena.

Egon baten etxeko neskame batek eta Mari Urraka'k alkar artu eta etxeko oiñordeko Ibon, gazte galanta, iltea erabagi eben, aren nagusitasuna eurakanduteko.

TXANGOAN ILTZALLEAK

Anboto aldera txangoa eskiñi eutsoen Urraka'k' eta bere neskarriak: Ibon'eri.

Muntzaraz'tik urten eta Atxaite'ra eldu ziran eta andik, aldatzak goña ta gora, Larrano gaiñera be bai, jolasti ta berbatsu. An jesarri ziran eta bazkari ederra iruntzi eben. Eta jan hita tean, ardaoa emoten eutsan sarritan here nebeari alik, mgzkoñren eginda itzi arte Urraka'k,

Mozkor-mozkor egin zanean, Mari Urtaka'k sakatu egin eutsan eta atxetik bera jausi zan Ibon gizajoa.

ETXEAN IBON'EN ARDURAZ

Etxera eldu ziranean, Muntzaraz'ko jaunak itaundu eutsen:

—Non dau kazue Ibon nire seme kutun eta galanta?

—Atxetik jausi da laprast eginda eta Axpe'ko trokan gelditu da-erantzun eutson: Mari Urraka'k.

—Lar edan dau bai, eta, ustebarik laban eginda, aurreko trokat'a amildu jaku-esarcban neskameak.

URRAKA LARRI

Kanpotik nasai agertu arren, estu ta larri egoan Mari Urraka here barruan.

Bere kontzientziak ez eutsan baketan izten: gaua etorri ta ezin loak artu, ogera joan bearrean subetea, eskaratzean, gelditu, barruko burruka gogorra ezin baratu.

URRAKA ANBOTO'N

Onctan, berak gitxien uste ebanean, Anboto'ko Mari jatsi jakon etxearen ke-zulotik eta Mari Urraka gaizto ta oker ori aidean artu eta here koba-zulora eroan eban.

Antxe dago, Anboto'ko leiza-zuloan Abadeño'ko Urraka, ango sorgiñen mirabe sekula santara arte.

EUSKALDUNAK JESUKRISTOREN ALDIAN

ESTRABON'EN LIBURUAK

Orain 2.000 urte euskaldunak zelan bizi ziran jakin geinke, Estrabon gizon jakintsuari esker.

Estrabon Grezian jaio zan, Jesukristo baiño 50 utar leenago, eta Ejipto, Abisinia, Asia Txikia, Italia, Frantzia eta beste lurralde asko, turista bezala, arakatu zituan, gero bere Geografia idazteko.

Ikusi eta entzun zituan barri guztiak bildurik, 17 libururu idatzi zituan, eta irugarren liburuan agertzen deusku zelakoa zan euskaldun menditarren bizi-modua.

BIZIKEREA TA JOKOAK

«Euskaldun menditarrak, diño Estrabonek, ez dabe asko bear biziteko. Ura edaten dabe eta lurrean lo. Gizonak emakumeen antzera ule luzea erabilten dabe, baiña gudarako (gerrarako) bekoki ganean ule ori lotu egiten dabe.

Jokoak eta apostuak asko maite dabez: ariñeketan lasterkari, azkonak (dardoak) nok urrunago jaurti, lagunuen arteko burrukak zaldiz naiz oiñez, artuaz naiz esku-utsik...

JANARIAK

Menditar oneik urteko zatirik luzeenean ezkurrez egin-dako ogiaz bizi dira. Ezkurrak legortu (sikctu), apurtu, eio, eta ogia egiten dabe. Ogi onek luzaro irauten dau.

Aker-okelea jaten dabe. Edaritzat zerbezaren antzeko sagarraren ardaua edaten dabe.

An ez dago ardaurik, baiña noz edo noz ardaua esku-ratzen ba dabe, senide arteko bazkarietan laster amaitzen dabe.

Janariak onduteko orioaren orde, koipea erabilten dabe.

MAIBURUKOAK ETA DANTZAK

Bazkarietan zaarrenak eta agintariak mai-buruan jarten dira, eta janariak euren artean eskuz-esku pasatzen dabez.

Jan ondoren, txistu eta txikibitu soiñuan, dantzan asten dira, gizonak eta emakumeak eskutik elduta.

Dantzari oso ariñak dira: leenengo saltuak goraka egi-ten dabez, eta gero belaunen ganean jausten dira.

OITURAK

Gizonak baltzez jasten dira, baiña emakumeak soiñe-koen ganean lorak josten dabez.

Jateko ontziak danak egurrezkoak dira.

Diruruk ez dabe erabilten, eta gauzak alkarren artean trukean saltzen dabez.

Gizon bakotxa andra batekin bakarrik ezkontzen da.

Zugatz enborrez egindako batel txikietan ur ganean ibiltzen ikasi dabe.

ERROMATARRAKAZ

Euskaldunen mendietara joateko bideak estuak eta la-tzak dira.

Leenago erromatarrakin burrukan ibili ziran, baiña orain bakeak egin dabez, eta batzuk erromatarrakin batera, diruagatik, gerrara (gudara) joaten dira.

Leen basatiak ziran, baiña orain erromatarrak irakatsi-ta, bizitza ohea eta gozoagoa daroe.

IZKUNTZA TA JAUNGOIKOA

Menditar arein izkuntza ere basatia da, eta gure agoak ezin leike alako berba latzik esan.

Arein izkuntzak gure belarrietan min emoten dau.



LAGUN ARTEKO BURRUKAK MAITE DABEZ,
JOKO LEZ

Batzuek diño menditar areik ez dabela Jaungoikorik. Ori ez da egia.

Illargi betea danean, txabolen aurrean, etxeko guztiak batuta, eguzkiak argi egin arte, dantzaka eta kantaka, euren Jaungoiko agurtuten dabe.

Jaungoiko ori bakarra da, eta ez dauka izenik.

*

Estrabonen Historia au irakurri ondoren, berak esan-dako guztiak edo geienak, euskaldunei buruz, egiak dirala esan geinke.

GOIKOETXEA'TAR IÑAKI

KANTA-KANTARI I (LAUA

ILLAREN BORONDATEA

Urteak dira, ogei ta zazpi bat bai, praille karmeldar bat etorri jatala mesedetxo baten eske: Lauaxeta zarenaren azken-olerki batzuk olerkariaren aitari eroan bear neutsazan.

Naparra zan praillea, Lerin-go semea. Lotsa edo zan bera, erdalduna, euskaldun baten etxera agertzen. «Zuk egin zeinke besede au», esan eusten.

Amairu urte badira, Urkiaga zanak, il-aurretan, itxi eustazala, azkenengo gomutagarritzat bere etxeokoi eroateko.

Andik laster, neu be Ameriketara
1311100 11111011611. 31 all. 1311 1110 6111611-
dik nazanean, ez neuke geiago atzeratu gura illaren borondatea egitea».

KOPIA BAT

Oso gogotik egin neutsan praille ari eskatzen eustana.

Laster ziren Lauaxetaren olerkiak bere aitaren eskuetan: bat erderaz (beste erderazko bat ordurako etxean euken), eta besteak euskeraz.

Batek bakarrik eukan titulurik (Biotz Donea); besteak ain barik egozan.

Esan bearrik ez, ez nebazala Mungiara eroan, neuk lenago guztien kopia atera barik.

BESTE KOPIA OKER BATZUK

Orain amar urte, 1967-n, J. A. Etxebarria euskal-idazle ugariaren ardurapean, Lauaxetaren azken-olerkiokin liburutxo bat atera nai zala jakini, urreratu nintzakien asmo orretan ebiltzazanai.

An zan nire eskutik igarotako olerkien kopia.

Laster igarri neutsen, eskuz esku ibilliak naiko aldaturik egozala eta neure kopia eskiñi eta eroan neutsen.

Olerki arek, urte berean asitako politikagirot zarraparratsua zala-ta, ez eben argirik ikusi.

Geroago, oraintsu urten dabe argitara, olerkariaren beste olerki guztiekin batera, zoritxarrez aitatu dodazan utsekin, olerkariaren gogo bein baiño geiagotan illun eta motel gelditzen dala.

Beste norbaitek be salatu ditu Lauaxetaren azken-olerkiotako alda-

OLERKARI UTSA

Emen doaz argitasuntxook, ezetako balio badabe, Lauaxeta zanaren azurrrak Gazteiztik Mungiara aldatzen dabezan egunotan.

Nik ez neban bere arpegia ezagutu. Baiña ezagutu ebenak esan dabenetik ateraten dot olerkari zala bera gogo ta biotz, eta olerkari bizi izan zala.

Gazterik ezagutu eban batek esan eban (Andima Ibiñagabeitiak):

«Lauaxeta olerkari jaio zala esango baneuke, eneuke bapere guzurrik esango. Poesia zan aren janaria, poesia aren arnasa... Ikusteko zan zelango joranez irakurtzen zituen eskuartera etorkiozan olerki-liburuak, naiz erdera batekoak nai bestekoak».

Gerratean bertan, lagun batek inglesezkoko olerki-liburu erosi barri bat irakurtzen aurkitu eban, bitartetik bitarterako asti-emongarri. Baiña irakurri bakarrik ez. Ibiñagabeitiak geiago be ikusi eutsan: «Mango indar berezi bat eukala olerti-era guztiak bereganatuteko, bere odol eta mami biurtuteko».

EUSKAL-OLERKARI

Ibiñagabeitiak berak diñoskunez, amazpi urte zituala, erdal-olerkariak irakurri ala, erderazko olerkiak asi ei zan ateraten.

Ederrak baiño ederragoak ei ziran,



LAUAXETA GIZON, KRISTIÑAU,
(Olerkariaren azurral.

«Zergaitik eztozak euskeraz egiten?, itanduten deutso Ibiñagabeitiak.

»Andik ordu betera agertu jakon bera euskerazko bat eskuetan ebala.

»Arrezkero, ezto esango, diñosku Ibiñagabeitiak, erderazkorik geiago idatzi ez ebanik, baiña euskerarekin lotu zan gorputz eta arima betiko».

Euskerara ainbat erdal-olerkari itzuli zituen.

ZAN OLERKARIA: (XETA)

Euskeraz eragin eutsen izen andiko olerkari askori: Baudelaire, Verlaine, Sully Prudomme eta abarri.

Baiña ez daigun uste gure literaturatxoa ezagutzen ez ebanik ez aintzat ez eukanik, norbaitek asmau eta beste

«Ama Brijiña euskal-olerkarietan» gaitzat artuta, artikulua bat be idatzi eban erdal-aldizkari baten.

Asmo andi bat ekarren azken-urteetan gogoan. Ogei urtez, ogei liburu, olerki-era guztietakoak, aterateko asmoa artuta eukan.

«Arrats-beran» izan zan asmo orretan emon euskun lenengo liburua. Eta bigarrena be amaituta eukala dirudi. Eta andik bat «Yakintza» aldizkarian emon euskun.

Non galdu ete dira besteak?

Eurotan erakutsi nai euskun bera gauza zala, edozein olerki-erako mamia beregandu eta euskeraz aren an-

Zoritxar andi orri aurrez aur begituten deutso eta dana eskintzen dau bere erriaren gomutaz, dana bere erriaren alde.

Eta bere barruko burruka au, eta ordu itzal aretan egiten dituen itxaropenezko amesak bertotan ustuten ditu.

EUSKERAZ ETA ERDERAZ AGURRA

Eta gaztetako urteetan lez, euskeraz eta erderaz diardu, erdeldunentzat erderaz, euskeraz euskaldunentzat, adiskideak be bietarikoak daukazan ezker.

Adiskide bakotzak artuko eban olerkariaren azken-gomutagarritzat bere bertsozko oparia.

Batzuk, irrizko bertsoak, esaterako bere bizarrari egindako erdal-sonettoa; besteak itzaltsuagoak, bere eta erriaren giroak eskatzen ebanari egokiozanak.

Bertso gogorrak, erderaz bere are-rioentzat egin ebazanak.

Zapaldu dabela, betiko galdu dabela urteko dabe; baiña ez, gorputza bai ilgo dabe, baiña arimea, ez. Eta agertuko da egunen baten bake-eguna.

*Eta bake donea sortuko danean,
nire azur utsak besteenakin batu;
eresi gurenaz lagundu bidean
obi bakarra arte; baiña, arren, bukatu
oroigallueren maitasun-itxala
Kristoren gurutzaz. Beragan ditxarot;
jesusen fedez besterik eztaukot.*

Gizon, kristiñau euskaldun eta kantari ii zan Lauaxeta. Orain, olerkariaren azurrak Mungiako kanpo santura, illerrira, eroandakoan, ez al dabe aren azken-naia bete berik itxiko. Kristoren gurutzearen itzalak zainduko al dituz azurrok «Errien Egun Aundira arte».



SKALDUN TA KANTARI IL ZAN
[ungia'ko illerrira)

OLERKARI IL

Olerkari bizi izan zana olerkari ii jakun.

Lauaxetaren azken-olerkiak nire eskuetara ziranean, arriturik itxi ninduen.

Argi barritan ikusten neban bera: olerkariago eta gizonago, gizonago eta olerkariago.

Olerkari utsa zanak ez eukan bere izatea azkenengo orduan galtzerik. Azkenengo orduak, eta egunak olerkari lez bizi bear zituan.

Bere barruan ain maitez sortutako amesak ezin burutu eta danari betiko agur egin bearra, a zan a beretzat goitik berako arriabarra!

Ain gazterik il bear, eta zelan il be, gero! Ez gudari bulartsu legez, zuzentasunaren alde, erriaren alde, burruka gogorrean. Ez, geldi ta ixilpean, orma bat atzean dauala.

Au lotsaria! Baiña dana artzen dau kristiñau-kemenez, dana daroa gizontasunez.

askok, inoren agotik dabiltzenak, esaten dabenez, arira etorri nai ez etorri.

.Lafarga zanak sarritan ikusi eban gure liburu eta aldizkari zarrak arakatu eta irakurtzen.

Eta Euzkadi egunerokoan bera euskal atalaren arduradun zala, bere eragitez, txitean pitean etozan erri-bertsoak, bertsolari zarrenak, alde guztietatik batuta.

ERRIGINTZA

GIZON ZINTZO BAT EUZKADI'N

Malzarraga 'tar Benigno

OROZKO'N-UDALKIDE

Munduan izan dira, gaur be ba dira eta izango be bai, benetako zintzoak. Olakoa zan Malzarraga'tar Benigno.

Orozko'ko Aranguren'go baserritarra zan, Ibarra-Olarte parrokoiko eleiztarra. Guda-aurretiko Euzkadi'n izan ziran auteskundeetan, udalkide, kontzejal, izateko Orozko'ko Udaletxean aukeratu eben.

GUDAN

Lastertxu geroago sortu zan anai-guda ikaragarria, eta garai itzal onetan jaiio be odoletan gure larterria, Euzkadi maitagarria.

Ba eukan ba, lana udalkide eginkor Beniño'k.

Lan orretarako aukeratua izan zanetik, gure udalkide gaztea zuzentasuna ta justizia egiten erritarren alde asi zan.

ERRI-LURRAK

Orozko, lurrez, Bizkai'ko erririk aundiena dalako, ba eukazan eta ba ditu iñorenak ez diran lur eta mendi asko, erriaren onuran erabilten diranak.

Ori orrelan izanik, jauntxu, kazike zital batzuk lapurretan ziarduen, mendi areik eta bertako zuzak eurrakanatzen.

Raniñn nrlalktrlvak 11r1a1vt,Pko irla7karia lavnn ebala, argi ta garbi esan eutsen oker ebiltzala, errikoak ziran ondasunen jabe eurak izatea gura ba'eben. Eta euren jabetasuna kendu be egin eutsen, egizko jabe zan erriari emoteko.

LARRIALDIAN

Aitatu dodan lez, laster eldu zan gudea.

Gudaldietan, erri-zaindari diranak izaten dabe dabe nori on egin.

Alde guztietan, negar, samin, gaizo, ta zaurituak.

Eskakizun guztiak entzun eta erantzuna emon bear!

Arriturik egozan Beniño'ren ontasun eta burukatzetaz, guztien serbitzari eginda ikusten ebenak!

ARERIOAK

Baiña gudea amaitu zan eta arerioak garaille urtenda, arroak eta ankerrak ziran lez, Euzkadi'ko gizon zintzo asko atxillotu ta espetxera eroan ebezan eta askori bizia kendu be bai.

Urte birako edo, giltzapetu eben Euzkadi'ko udalkide Beniño, bakar-bakarrik ona ta zintzoa izan zalako.

ESPETXETIK GAIZORIK

Etixeratuta gero, laster il zan, espetxean sartu jakon gaizo bategaitik.

Ona emen gaizoaren sortzea.

Bein, giltzapetoak kartetan egozala, Franco'ren espetxe-zain arro batek ez dakit ze oar egin eutson jololari bateri.

Onek begirunez, baiña sendo erantzun eban.



Arrokeriz zoraturik a, oiñaze, min, destain eta ezin esaneko iraiñez bete eban, Kristorenak ezarri eutsazan.

Ain gauza itzalgarrak ziranez, gizon minduak leiotek bera bere burua jaurtiaz, galdu eban bizia.

Espetxeko lagun aren oiñazea ta azkena bere aurrean ikusirik, erderaz «mal de bronze» esaten jakona sartu jakon Benigno udalkideari, biotz ikara aundia emoten dauen gaizoa eta gatx orregaitik, oin-diño gazte zala il zan, 36 urtekoa zala.

OLAKO GIZONAK BEAR

Euzkadi'k bear ditu onen lako gizon zintzoak eta serbitzailleak,

Datozen auteskundeetan aukeratu bear doguz errietako Udal-etxeetarako zuzendariak.

Arren, ez aitzu Sabin irasle ta irakaslearen esakunea: «ERRIENTZAT ONENAK DIRAN GIZON BIOTZDUN ETA ZINTZOAK DIRA, JAKINTZALARIK BAIÑO BEIÑAGO».

ERRALDOIRIK LUZEENA

LIBURU ZARRA

Letona'tar Aureliano nire anai abadearen etxean, Hilaria arrebeak gertaldien erderazko liburu bat aurkitu eban. Irakurri ebala inostan berak eta neuk be geroagoko uda baten, neure oporraldi-etan an nengoala, irakurri neban.

ZALDUN GAZTE BAT

Aldi aretan Amurrio Bizkai'ko erria zan eta Juan Diaz de Ginea bertako gazte zalduna. Olartc'tar Katalina'gaz, Orozko'ko Olarte'ko neskatilla polita berau, eta aberatsa, ezkondua zan.

OLARTE'N

Orain be Olarte goikoan agiri dira arri oargarri batzuk, bear ba'da neska orren etxekean jauregiko oiñarriak izan ziranak.

Irureun inguru neurkin, metro, dagoz iparralderantz, udabarrian izparringiak esan euskuenez Bizkai'ko baserririk zarrena erre zan lekutik, Leburburu'tik.

AUNDITASUNA

Juan Diaz de Ginea oneri buruz, esanalak esaten ziran jente artean. Benetan gizon ausartua, kementsua eta jainkozaletasun aundikoa ei zan.

Baiña here entzute aundi onek ba eukan beste oiñarri bat: Bere indarra, bular-zabaltasuna ta aunditasun parebakoa.

ILLOBI AUNDIA

Olarte'ko eleizan agertzen dan illen izen-lerroan auxe agertzen da: Oi-ez-lango gizon au il zanean, eleiz-gizonak arduratsu' ibilli ei ziran, iltegian bera obiratzeko bear zan besteko illobirik aurkitu ezinda.

Gere goirik-berakoaren neurria 3,50 metro edo neurkiñekoa ei zan.

EGILUZE

BENETAKO BAKEZALEA

- O'COJVNELL'en bizitza-liburua
- Gazteen aurrean
- Irlandarren askatasuna
- Bake-politikea
- Ez gogorkeririk, ez norkeririk

Raimond Moley'k idazti interesgarri ta onuratsua idazti dau eta idazti au oso gogoangarria da, gaurko ezta-baida ta goraberak jakin gura dabezenentzat.

Nloley'ren liburu au, O'Connell'en bizitza-liburua da. Ederra ta lilluragarria. Idazle jakintza-zale onek, O'Connell ospetsuaren pentsakerak eta jokerak egokiro agertu ditu.

* * *

O'Connell izlari dizdiratsua zan, baiña bere itzaldiak ez ziran beti onartuak. Eta zergaitik ori?

Lenengotan gaztediaren aldekoa izan zan, baina gero gazteen aztertzaile zorrotz biurtu zan O'Connell.

* * *

Irlandako erria goratzen aletin guztiak egin zituan buruzagi onek.

O'Connell politikari argitsu ta gartsuak, eginkizun bi eukazan garrantzitsu lez: Inglaterra'k ipiñitako eragozpenetatik irlandar katolikuak askatu eta bere gobernua Inglaterra'ren batasunetik atera.

Eta elburu orreik lortzeko artu eban bidea, gutzat jarraigarria dala uste dogu.

* *

Elburu ori lortzeko berak lenengo egin ebana, erritarrai onartu eraztea izan zan, ez gogorkeriz, errazoiz baiño. Erria etsipenetik, epeltasunetik eta gogobakokeritik itxartu eban, gero gauza ori arrazoitu, ondo kontuan artu ta gogoratuazo eutsan.

Bere politikea, bake-politika maitagarria izan zan, ez gogorkerizkoa, eta bide orreri jarraitu eutsart bizitza guztian.

* * *

Irlandar gaztedia errez erneguan jarten zan, baiña bere erantzuna beti izaten zan bardiña: Gogorkeririk ez. O'Connell'ek edozein pertsonari dedua ta itzala izaten eutsan.

Juda'tarren aurka egoan norkeria urrintzen aletin aundiak egin zituan.

Ipar-Ameriketako menpekeria baztertu gura izan eban, jopu-egoera zuzengea kentzen aleginduaz, naiz ta menpekeri orreri indarra emoteko diru-eskintza ugariak izan. Berak ez eban orren merke bere burua saldu, askok egiten dauan lez.

LETONA

UMEEN NOTAK ETA GURASOEN JOKABIDEAK

ONDO BIZITEKO, IKASI

Esaten genduaneez, ondo bizitzeko ikasi egin bear da, edo beintzat, geienbaten orrela pentsatzen dala esaten gendun.

Geure bizitza orretan oinarritzen badogu, ikasten ez dauanak ezin bizitza onik izan; eta, beraz, Ian neketsu batetik bizi bear.

Ikuspegi onetatik nota txardun umearen etorkizuna oso illun ikusten dogu.

Arduratuta geratzen gara, eta sarritan, guraso eta seme-alaben arteko artuemonak tragedia biurtzeraino eltzen dira.

Ona emen sarritan gurasoak artzen dabezan jokabide batzuk.

KONTUZ, GERO !

Semearen etorkizuna notetan oiñarritzen dauan gurasoak, jokabide bi oneik artzen ditu geienetan: agirikak eta zigorra.

Eurak erabillita, semeengandik nota obeak lortuko ditula uste dau.

«Bai, bai, aprobatuko dituzu, edo ostantzean ikusiko dozu», esaten dautso.

Agirikak eta zigorrak, zigorrak eta agirikak, eta asarrazten dira.

Semea ixiltzen da. Ez dauka beste jokabiderik.

Baiña ez dakigu bere barruan zer asmatzen geratzen dan.

Gurasoak, ostera, bere asmoak lortuko ditula uste dau, eta, asieran lez, asarre darrai len esandakoa ausnartzen: «Lortuko ditu, bai, lortuko ditu. Ostantzean!...

KONTUZ, GERO, GURASOA !

Gogor jarri bearreko aldiak be ba dira bizitzan.

Baiña orrelako jokabideari oratu baiño leen, beste zer-txo bat be aztertu bearreko dogu.

Zigorrak ez ditu nota obeak ateratzen, ez eta gitxiagorik be.

Zigorrak sarritan ondorio txarrak be izaten diru: bildurra, sendi bizitza gorrotatzea, gurasoak ikusi eziña, eta abar...

Ez etc dago beste jokabiderik?

Zergaitik ateratzen etc ditu ain nota txarrak umeak?

Aztertu egizu apur bat.

ZER EGIN ALPERRA BADA?

«Zigorra ezetz» diñostazu. Baiña... beste zein jokabide artu? Alper utsa da».

Oraingoz nota txarrak dituana baiño ez dakigu.

Eta alperra edo ez alperra esatea baiño leen, beste zer-txo bat aztertu bearra dogu.

Nota txarrak ez dira beti alperkeriaren erakusgarri.

Izan daiteke ikasteko ez gauza izatea, edo ikasteko gitorik ez izatea ez etxean ez ikastetxean, edo irekasleagazko goraberaren bat izatea, eta abar, eta abar...

Beraz, «alperra da» esatea ez da naiko.

BAIÑA... ARGIA DOZU ETA...

Ba etc dago gurasoarentzat semerik argia ez danik?

Ez dot uste.

Beste askoren antzera, neureari begiratzean (eta oso ille gitxi ditu) orixe berori pentsatzen asten naz: «Ze argia dan !»

Au guraso guztiei gertatzen jakuna da.

Baiña bizitzan, ikasketa urteetan, ez dira danak argitasun bardiñekoak: batzuk besteak baiño argiagoak dira; beste batzuk ez dira ain argiak, eta irugarren batzuk ez dira ikasketa askotarako gauza.

Leenengo bien artean geure semeak ikustea onartzen dogu.

Baina... geurea azken onein artean?

Eziñezkoa da. Ez dogu onartzen. Ez dausku biotzak onartzen izten.

SIKOLOGOAGANA

Geure umeak argiak ez dirala entzun bearra oso samiña da. Gogorra da. Gogorra eta ulertu eziña.

Bizitzan argi ikusten ditugu. Eta bizitzan orrela izanik, zelan izan daiteke liburuetarako ez gauza izatea?

Biotzak eraginda edo, ezinezkotzat joten dogu.

Beste aldetik, umearen etorkizuna, izatea eta zorionta suna bera be «ikasle ona» izatean oiñarritzen dogunez, orra or gure biotzetako samiña.

Eta samintasun orretan ziurtasun billa sikologoagana joten dogu.

Eta zelan itxaroten dogun bere erantzuna!

Atsegin jakun zeozertxu esango etc dausku?

Ala... ikastetxean esan dauskuen lez, laburtxua ete da?

Zer ete da? Zelan etc da?

SIKOLOGOAREN ERANTZUNAK

Sikologoaren erantzunak ez dira beti zuzenak izaten.

Au jakiñik, bere erantzunei sarritan ez dautsegu jaramonik egiten.

Baiña sarritan ez dautsegu egiten, ez siñisten ez dautsegulako, min emoten dauskulako baiño.

Nori ez dautso min emoten norberaren semea ez dala argia entzuteak?

Edo umearen atzerakuntza senar-emazteen arteko gorabera edo ulertu eziñagaitik edo sendi bizitzan diran beste gorabera batzukaitik, edo etxean girorik ez dogulako dala entzuteak?

Oraindik... atzerakuntza ori irekasleen edo ikastetxearen erruz dala entzutea pozgarriago litzakigu.

EA, TXIKI ETA LUZEA

BARRI-ITURRIA

Ba ete dago gaur etxetan komoda zarririk?

Paper zarrak bai. Eta alaxe, denporaz oritutako bat bialdu dauste: Emen ei dagoz iatarren jakin-garriak.

Orra. Paper ori Pascual Madoz'en «Diccionario Geografico» tik norbaitek maitasunez artu eta kopiaua da. 1847 urtean agertu zan liburu ori.

Ea'tik zenbat legua edo bost kilometroko dagozan Burgos, Kalagurri eta beste errietara esateak, ez dot uste merezi dabenik. Ez al dago lengo tokian gure erri baketsu au?

GIROA TA ETXEAK

Aize bolada guztiak joten ei dabe bertan eta giro, klima egokia zala emengua sukar edo kalentura purtugarriak batzeko.

Eun etxe, Iau kale eta plaza bat sasoi aretan. Kontseju etxea be bai, nai ta zar eta erdi usteldua; kartzela bat, eskola bat 70 umegaz. Bosteun errial urteko ordaintzen jakozan eskola orretako maixuari.

BASOAK ETA BIDEAK

Aresti, Allua eta Endia mendiak gaztaiña, aritz eta artaz be-teak. Basobarri'n metal ura.

Erritik urten al izateko bide bi: Lekeitio'rakua bat eta Gernika'ra bestea, azken au urte aretan oraindik amaitu barik.

Martizen eta domeketan etortzen ei zan karterua.

LURRAREN FRUTUAK

Artzen ziran igali edo frutuak: Gari, arto, gaztaiña, patata eta babak. Erbi ta eper ugari inguruetan. Arraiña be bai.

Urun errota bi eta burdintegi (ferreria) bat.

Sal-erosketako, komerziaroko, bertan egozan sei txalupak arrantzaten eben arraiña.

BIZI-LAGUNAK

148 etxe-jaun bizi ziran; 756 bizi lagun errian danetara.

Iruregei urte inguru lenago, itxasontziak be egiten ei ziran bertan, baiña liburu au agertu zan sasoiarrantzako batelak bakarrik. Arrantzale erria izanarren,

gazterik geienak Ameriketara joaten ei ziran, iru-lau urterako, diru pixkat egiteko gar eta preminaz.

Ara Madoz'ek esandakuak, labur-labur barriztuta, oraingo paper zurietan.

GAUR KAPITANAK

Eta gaur?

Gaitz billatu leike itxasoetan, itxasontzi merkatari andietan, eatarren bat ez dabillen ontzirik. Galoidun beti. Kapitan, pilotu edo antzeko. Ba dago, ba, itxas giroa bertan. Nai ta kaia, portua, ondarez beteta, udazalien batel txikiak osta-osta gordeteko baiña bestetarako izan ez.

Izenak bai: «portu-solo», «portu-txiki» eta orrelakoak. Gaur, geienak, eurretan etxeak egin diralako, izena be galdata.

ETA LANTEGIA

Industria bakarra: Ingarkintza. Ingarra, ingi-arra edo ingorra, ingogorra esan nairik artuta be, kartoia da. Beraz kartoigintza. Berba gogorra egiten da askorentzat ori, baiña ez al dogu izpar-ingi gure esaretan erabilten? Beraz kartoigintza errezago izango balitz be, ez Pilatos'enik egin zer izan ete leiken zuritu ezinda.

Eatarrak Ingarkintza zabaldu dabe bidez bide.

ELEIZAK ETA EDATETXEAK

Uri-buru edo kapital batek baiño parroki geiago. Eta Bilbo'ko Somera kalean aiña taberna.

Bake eta ixiltasun toki edo kabi deituten dautse etxe barrien merkatariak. Neguan bai.

ITXASORA

Eta geiago?

Zerbait luzatzeko, barriro itxasora jo bear. Kontu zarretara.

Orain 150 urte ainbat txalupa ibiltzen ziran Ea'tik merkataritzan. Bilbo'ko Consulakoan agertzen dira ainbaten azterrenak: Etkezabal, Endeiza, Ibinaga, Goitisol, Kortazar, Erkiaga, Gabika, Zarakondegi eta abar txalopa jaube lez agertzen ziranen abizenak dira. Gaur sendi edo famili orreik jarraitzen dabe. Beste izen askok be bai.

IA'N OTARRAINAK

Or Ea. Ea edo Ia. Bertakoak naiago dabe Ia.

Elantxobe ta Lekeitio artean, Natxitu ta Bedaru beso dirala, Kantauri itxasoari begira bizi dan erri txikia da Ia.

Sasoi baten otarrain (langusta) arrantzalien kaia. Ba dakiez ondarrutar arrantzaliak ango kantak:

*joakin Pitxun semiak
Ia'n dabiz iru,
langostatan onena
gazlenak urten du...*

A. ZUBIKARAI



IBARRETXE MARRALARIAK ONELAN IKUSI EBAN EA

GAURKO ARAZOAK

AGUR EMALDIÑE

ETXE BEERATUA

Goizean goiztik jagita gure asteroko mendi-ibillialdari asiera emoten gengoazala, etxetik urteñez bat batera! JESUS! batek urten euskun. Zer zan a? Zelako bezuza, zelaka erregalua itxi dauzkue Erregeak... Emaldiñe basetxea lurrean.

Bere orma lodi ta sendoak, here tellatu zabala, ainbat gizaldi, ekaitz La afruntuei ganezkoa egindakoa, ora or gizonak asmatutako tramankulu, makiña batek, goizetik gaber ezerezia biurtuta. Zelako biotz miña artu genduan!

Ez, ez genkialako. Aspaldiz gengoan jakitun ta itxaroten egun mingots ori, gure auzunean gaizotegi barria joiala azaldu zanetik ona.

GAIZO-ETXE BARRIA

Baña gaizotasuna da bat eta eriotzea beste bat.

Naiz ta itxaropen barik egon gaizoa, gaizorik dagoen artean gugaz dogu. Baña eriotzak, bere irudia daroasku betiko, ez dogu barriro ikusiko, or untzea.

Ez da arritzekoa ba, gure auzuneko baserri ederra birrinduta ikusiaz, gure biotzak min artzea.

OBEAREN BILLA

Norbaitek esan daiteke. Txotxolo ori! Zer dala ta mindu? Aldi barriak dira oneik eta ez gara beti lengoari hegira egongo!

Egun barri oneik aberastasunak dakarskuz, aurrerapide aundiak, bizitza obe bat.

Danak egi etc dira ba? Edo, obeto esanda, egi osoak etc dira?

Menditik genbiltzela, ez genduan beste gairik erabili geure artean.

Aberastasunak ederrak dira, aurrerapideak ez gitxiago, baña azken baten egia eta da bizitza obe batera garoazela?

ZEIN OBEA?

Zer da bizitza obea?

Danok alegindutea zelan diru geiago lortu naiz ta urkoa menperatu on lortzeko.

Gure etxea tresna barriakaz bete bizi-modu lasaiaigo bat izateko, baña ez besteak gugaz parte izateko, gu geu jaun ta jaube izateko baño?

Ori bizitza obea ba-da, guk beintzat uko egiten dau-tsogu.

EMALDIÑE'KO GIROA

EMALDINE.—Zure kerizpean, zure tallatu laun ta zabalaren azpian, zenbat maitasun, zelan estaldu zenduzan

oilo lokak bere txita-mordoa lez, euskaldunen nortasun ta oitura guztiak.

Euskera debekatuta egoanean be, Anton zarrari entzutekoa zan, beti irribarreka, beti barriketan baña beti euskeraz.

Olan ezi zituzan bai bere seme-alabak, bere illobak eta onein seme-alabak.

Basetxe onetatik urten eban Juan Antonio dantzari irebeak, gaur egun Arratia'n menduta ta bere Euskal dantza ekintzalle an diarduanak ta bai ta be Arantza, Andra Mari taldean ainbat lan egindakoa soiñulari ta dantzari lez, eta gaur egun gure Parrokiko soiñulari apal eta zintzoa.

KANPORAKO LANAK

Baña Emaldiñe'neko ekintza ezan etxe barrukoakaz amaitzen.

Eta len esandako une larrietan, euskarazko ekintzetarako tokirik ez geunkanean, an egoan Emaldiñe'ren kerizpea, guk euskaldun abestiak landu ta gertatzeko, euskaldun meza ta jaiari indar barria emoteko.

f.,,re hizitza harri nneik gai ete dira nrrela inkal-7ekn? Ez ete dakarku norberekari larregi?

BARRIAK EDER EGITEN

Ez gara lenengoak izango baña ez azkenengoak be, ta barriro gure Mikel'en esanari «barriak eder egin» jaramon eginda, gaurko aurrerapide ta bizitzak gizaldi zoriontsuago batera eroango ba-gaitue, euzkaldundu egin bearko doguzala diñogunak, gure Lagi Zarrak diñoen bezela gizona ipiñiaz ludi onetako gauza guztien ganetik.

Eta ori lortzeko ainbat alperriko buru-bide alboan itxi bear diran ezkerro, ba-leiteke onuragarriago izatea gure Erriarentzat txiroago baña lagun urkoari jaramon geiago egiñaz, bizitea.

Aldatu daigun gure bizitza bai, baña ondo oiñarrituta egonik, gure asaba zar ta euren jakintza aitzu barik.

AGUR EMALDINE!

Oraintsu Erreketa, orain Emaldiñe, Kiskibil eta gogoraten ez naizen beste basetxe bi, gure auzune laburrean. Biar zeintzuk? Baserri barik geldituko ete gara?

Auznartzeko gauza dala uste dogu.

Agur ba Emaldiñe, agur bero bat Kiskibil. Gure seme-alabak, gogoratuko ete dira zuokaz? Eta guztiz galdu ez daiguzan ez ete litzake ondo egongo gaizotegi barri oneri Emaldiñe izena ezartea?

Onela biar etzian norbaitek itaunduko ba-leu —nondik izen ori? erantzuna azaldu— keran, euskaldun oiñarriak barriztuko litzakez, danak ez ba-dira, bai geienen bat, nondik datozen jakiñerazoz.

GUINNESS, LIBURU BARREGARRIA

LONDRES'EN URTERO

Urtero Londres'en liburu barre-garri ta berebat oso interesgarri dan bat argitaratu oi dabe.

Aurtengoa, 1978'garrengoa, 24' garren ateraldia, urten-barria dogu.

Onetan be arrigarria: urte-amaieran atara bearrean, asieran kaleratu dabe.

Idaztiaren izena «GUINNESS» ei da.

Ba daroaz salduta bere bizitz osoan munduan barna ia 33 milioi ale.

Txantxetan ibilli arren, baten bati adarra jotekotan, esango geunke ez dala txantxetako zera.

Luze-samarra da, 350 orrialde. Gatxa jaku beraz idazlantxo ontan gutziz adierazi ta borobiltzea.

Ori ta be, beratzaz zertzelada batzuk emotera naitoatzue.

GAI BATZUK


Argazkiz eta irudiz aso ederto apainduriko liburua dogu.

Bertan ikusi geinke John Baldwin gaztea, 19 urteduna ta luzanga itxurazkoa bera, belaunikaturik 14 kmko ibilaldi bat lau-oiñean edo katuka egiten.

Bertan Phil Milner gizon indartsua, 10.000 adrillu-teilla ordu lauren baten ikubilkadaz puzkatuten.

An dagerkigu Sandy Allan ludi-ko neskarik garaiena. 22 urte ditu, Shebygoille'n, Indiana'n, jaioa, ta urtero lauparen bost atz azten ba'zan, gelditu da baingoan 2,31 metrora eldu danean. Neska galanta benetan. Ez da mea, ez ta lodiegia be.

Tim Hayes irlandarra lau egun osoetan gorpu bat ba'litz lez zarraldo baten sartuta lurperatu eben Ling Field'en (Inglatera'n). Arnas-bidezat eroazan odi edo tutu bi, buru ta oiñen ingurumarietan. Dan, bizirik lurperatuta irautean, ludi-ko norgeilagokako irabazlea «recordman» izateko.



ABELETXE'REN GAZI-GAZEN ANTZA

Onek burura dakarst adizkide dodan Abeletxe'k bere GAZI-GAZAK liburu interesgarrian agertu daroan izkirimiri bat.

Ori ta be askoz obeak daukaz.

Liburu onetzaz, al ba'dot, beste baten (jazoriko barre-gaiz, izkirimiriz eta ipuin-alegiz beterik Jagonetz) emon al izango dautzuet barriren bat edo beste, euretariko labur eta politanak diranak adierazoz.

Gaiñera idazti merkea da.

Erri ta ikako berbetea maisuki darabil bertan eta zabalkundea ziur merezi dauala deritxat.

Onenbestez ba noa lengo arira.

BESTE GAI BATZUK

Iñazio Oñazan'ek amaikatxu onu on emon izan eban bere bizitzan.

Ori ez da arritzekoa. Arritzeko dana da, ilda gero be onu emoten jarraitu ebalu ikusiko dozunez.

II zanean, lau adizkideak eroien bere zarraldoa bizkar-gaiñean.

Bide luzetxoa egoan basarritik urira.

Bide-kurutzera eldu ziranean anderuek esan eben euren artean: Nondik joango gozak? Goiko bidetik ala bekotik?

Eta Iñazio'k zarraldoaren es-talkia jaso ta bere burua atareaz esan eutsen: Ni bizi nintzanean, goiko bidetik joaten nintzan.

GUINNESS liburua jarraituaz, Brian Beatie'k Cheshire'n (Inglatera'n) 1977'garrengo garillearen bostean 2.077 kilometro egin zitun 4,5 litro gazoliñaz, iru txirringako tramankulu motordun baten gaiñean.

TXAPELDUN BAKANAK

Munduko txapeldunen artean idoro geinkez maatsak botatzen, sagarrak zuritzen eta golf jokatzeko pelotak zutunik, goitik bera illaran eta itxasgarri barik barik onetan eutsiten, trebeenak diranak.

Zarranda au luzatu leiteke beraz: Yo-yo jokean, piñu-abagiten eta abarretan oso errimeak diranak be agertu ei dira.

Euskaldunik dagoanik ez dakit ziur.

Gaurkoz beintzat, ez noa onetzaz jarraitzera.

EZKARAI'KO ASTAKERIA

Baiña, ori tabe amaitzera noa, gogora datorkit bein Errijoja'ko Ezkarai errian, ango jaietan bertako gazteak asto bategaz egin ebena.

Astakeri galanta benetan.

Menperatu eben asto gizajoa bost edo sei lagunen artean eta agoa zabaldu-erazi. Beste batzuk ardaul suil aundi bat artu ta astoa mozkortu arte ez eben euren zeregiña itzi.

Azkenenz an ebillen, a noiz jausi noiz jagi, ta beti zabuka ta bilinbalanka asto errukarria.

Mereziko luke eginkizun onek GUINNESS idaztitan ipintea?

Ez dot uste, ba abereai be, jaiak izan arren, begirapen pizka bat zor dautsegu.

KILI-KILI



KILI-KILI'TARRAK BILBO'N
(1977-X-9)

JOKABIDE ZINTZOAK

Urrillaren 9'an, kilikili'tarren eguna ospatu zan Bilbo'n.

Niretzak benetan egun zoragarria.

KILI-KILI Erretolaza Joseba Andoni'ren ardurapean eta bera buru zala San Anton'en jaio zan. Elburu ederrak berarenak eta elburu orreik dira oraindiño be bereak: Ume euskaldunai maixu barik euskeraz irakurten eta idazten irakatsi, eusko jakintza erein eta Jainko-zaletasuna umeen biotzetan indartu. Benetan jokabide zintzoak eurenak.

JAINKO-BIDETIK

Urrillaren 9'an ondo baiño obeto ikusi neban KILI-KILI'tarrak Jainkoaren bideetatik dabiltzala.

Egun a dana ederra izan zan eta niretzak ederrera umeen mezea San Anton'go eleizan. Eleiza-barrua goraiño, geiago eziñean, umez bete-be terik, beste ume geienak eleiz-atari ta inguruetan, eleiz-barruan lekurik ez egoan eta.

Ume-eztarri zolien abesti zerutarrak! Bertsolari txikien bertso biziak! Jaun-artze amai-bakoak! Areek bai zirudiela zerua! KILI-KILI'tarrak neure lobak ba'lira lez maite dodaz!

Une artan poztasunezko malkoak begietatik urten eusten! Eztarria biotz-zarrastak estututa neukan. KILI-KILI'tarrak lenengotik Jainkozaleak izan dira bai!

OTXAGABIA'REN

GOMUTAZ

Lenengo urteetan ibillaldiak egiten

genduzan batez be Naparroa'n zear.

Egun baten Otxagabia izena daukan Naparroa'ko erri politera eldu gintzazan.

Bazkal-ostean, irrintzi, abesti, sokatira ta beste jolas jator eta garbi batzukaz, ujuju ta ajaja Otxagabia'ko kaleak alaitu ebezan eta, bat-batean, leiotik begira egoan zaldun bat jatsi zan nigana eta itandu eustan: Non aurkitu dituzue edo nondik norako-ak dira neskato-mutiko ain garbi ta alai, kristau eta ondo landuok?

Nire erantzuna: Euskal-ume kristauak dira oneik.

AZKENENGO EUSKALDUNAK

Gure umeen inguruan batu ziran baita, erri aretako aguratxu bikain batzuk, erri aretako azkenengo euskera ekienak.

Gure umeen garbitasuna, edertasuna, ta kristautasuna ikustean, euren euskal-biotza urturik, negar egiten eben.

Erri orretan euskerea ia guztiz galdurik dago, batez be eskolearen eta eleizearen erruz. Zartxu areik eleizan irurogeta amar urtetik ona ez eben euskerarik entzun.

GURPIDE JAUNARI ERREGUA

Orduantxe esan geuntsan gure goztzain zan Gurgide Jaunari:

—Jauna, alegiñak egin zure errian ikastolea ipinteko, bertan euskera dakiñak geitu daitezcan.

UMEAK ABEDETZEN NAPARROARA

Isere erantzuna:

—Ori, bear ba'da, Dipurazioak egingo dau. Ez dakit...

ZORIONAK! JARRAITU!

Zorionak KILI-KILI'ko zuzendari ta beragaz lan egiten daben guztiai! Jarraitu bide garbitik, Goiko Jauna iñoiz ez aaztu. Euskera irakurten eta idazten millaka ta millaka umei irakatsi dautsezue, baiña kristautasuna aide batera itzi barik. Ori da bide jatorra!

NAZIONAL-

JAINKOGABEKERIRIK EZ

Urteotan ainbat mar-mar izan da gure artean, nazional-katolizismoa dala ta ez dala, ta bere aurka; ONDO EGINA, benetan, baiña orain nazional jainkogabekeria edo ateismoan Jausteko arriskuan gagoz.

Ume azitxuak asko entzuten dabe eta errezerre Jaunagandik aldenduten dira.

Nazional-katolizismoa txarra ba'zan, eta zan, izan be, nazional jainkogabekeria, ateismoa, ain txarra edo txaragoa da.

Gure euskal-umeak arrisku orretatik zaindu egin bear doguz, benetako kristautasuna erakutsiaz, or dagolako berez kristau dan Euskalerrriaren etorkizuna ta itxaropena.

GALLASTEGI'tar Kauldi'k

Bizkai'ko aditza ikasteko

EUSKAL ADITZA BIZKAIERA

2-garren argitaraldia
salgai liburutegietan eta
egilleak berak

PUXANA

* * *

AMNISTIA

*Amnisti-urtea, amnistiatzazko eskari-urtea deitu leikiogu, egu-
no iñoz barriro itzuliko ez jakun urte zarrari.*

* * *

*Amnistia garatu zala batzuk, etzala burutu bestetzuk... Aska-
tasuna askekeriz eta demokrazia demokrazikeriz orretan doguzan
artean, gero ta beti izango gara kaiola-txori eta kate-txakur, batez
be aske kaleraturiko egun berean lengo arri labanetara ba'goaz la-
prast egitera.*

Eta uri, erri ta bidesketan zear ibiliko gara politikolari, ema-

*galdu, atzelari, iltzaille ta lapurtoentzat amnistia-eske, bakoitxa
bere opillari su egiten.*

* * *

*Oraingo ontan, neu be ba, emen nator, millak urtetan iñori ez
gaitxik ez kalterik iñoiz egin ez dautsanaren aldezko eskari onegaz
bizkaitarrakana: AMNISTIA BIZKAIERARI, AMNISTIA
BIZKAITARRENTZAT.*

* * *

*Maltzurkeriz nastutako indarkeriz kendu euskuezan erri-esku-
bideak berreskuratzea belutututen dauskuen bakoitxean, agoa be-
teko su ta garrez diardugu Madril'go jauntxukariaren aurka.*

*Baiña oartzen gara, konturatuten ete gara, bizkaitarrok, Ma-
dril'ek Euzkadi'ri dagion zapalkuntzea berbera egiten gabiltzazetik
bizkaiererari;*

LANDAJUELA'tar A.'k

EUSKERA- ZALEAK

ZER DA?

—Ekaitza? Itxasoan naiz legorrean sor-
tzen dan txarrerako giro-aldatzea
aizea, olatua, trumoa, iñixetuak eta
euria edo edurra ondoren.

—Legortea? Euri-bako aldia, sikatca.

—Garaitu? Burrukan irabaziaz azpi-
ratu.

—Txangoa? Ibiltaldi atsegingarria.

—Amildu? Lur-azalaren zulora jausi
edo bota.

—Mirabea? Neska edo andra otseña,
iñoren agindupean serbitzaille da-
goana.

—Urrutikuskiña? Urriñekoa ikusteko
tresnea eta tramankulua, telebiziñoa.

—Dagerkigu? Agertzen jaku. Da —adiz-
kizun zuzenaren zatia (morfema), ger-
aditz-ondoa, kigu— guri-zatia.

—Aolkari? Onua, aolkua edo kontze-
jua emoten duana.

—Gaillena? Gaiñera urteten dauana
edo nagusi dana.

—Bizpairu? Bi ez ba'dira iru, gipuz-
koa'n esaten da, Naparroan eta Ipa-
rraldean be bai.

—Barna? Barrua, sakona.

—Zertzelada? Baldintza edo zeaztasun.

—Puzkatu? Erdibitu, zatitu, apurtu.

—Zerraldo? Il-kutxa, luze egoteko
lekua, buruz luze jausi.

—Odi edo tutu? Barrutik zulua dauan
burdin edo zurezko zerbait, kanala
edo tuboa.

—Izkirimiri? Alkar-izketa ariña, ba-
rregarria; janari ariña.

—Zabuka? Mozkortuak egiten dituan
ara-onak dira zabuak; zabuka, ara
ta ona.

***Olako eginbearrak artzera,
oitu zaitte.
Urte bi igaro baiño len,
lau laguntza barri.***

Gauzetarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskatzen dauan laguntza-moltzo osotua-goa eskintzea aitatzen dogunean, geuk daukaguzan aurrerapen gurariai egitezko erantzuna emoteko baietza agertzen gagoz.

Esaterako, dana gertu daukagu eperako dirua ezarteko libretak izan daitezcan.

Laguntza barria da ori eta laster emongo doguzan laguntza askoren artean, lenengoa.

Gure laguntzak zabaltze ta aldatze au, Bizkai'ko Aurrezki-Kutxak guztiontzat etorkizun ederrago bat egitea gura dauala adiazoteko bidea izango da.

Etorkizuna, geroa, gaur asi bear dogu.

Biar emen izango da.



**BIZKAI'KO
AURREZKI KUTXA**

Geroa, bertan daukagu.

